

## Kultura

150.000 bisitarik euskal kulturaren plaza bete dute egunotan, 49. Durangoko Azokan > 14-15




## Saminaren aurrean protestarako deialdia, gaur, Traña-Matienan

Eguaztenean, Matienan hilik aurkitutako ama-alaben hilketak gaitzesteko, manifestaziora deitu dute gaurko, 19:30ean. Hainbat erakundek, elkartek eta sindikatuk egin dute bat deialdiagaz. Ertzaintzak hildakoen senar eta suhia atxilotu du, hilketaren egilea izatea egotzita. > 2

## Bizkaibuseko autobusa domekan helduko da Izurtzara eta Mañarira > 3

Urtetako eskaeren ostean, domekan helduko da Bizkaibuseko autobusa Mañarira eta Izurtzara. Zerbitzu hori ez zeukaten Bizkaiko herri bakarrak ziren. Bilbo-Durango linearen luzapen bat izango da herri biak Durangogaz eta Bilbogaz lotuko dituenena. Bestalde, Bizkaibusek beste aldaketa batzuk ere egin ditu. Astelehenetik aurrera Elorriotik Galdakaoko ospitalera joateko aukera izango dute elorriarrek. Garain, berriz, autobusa kendu, eta taxia jarriko dute.



### Zornotza > 8

Asteburuko jaialdi solidarioan jasotako dirua haurren minbizia ikertzera zuzenduko dute

### Durango > 4

Larrialdi zerbitzura bigarren erizain bat bideratzea erabaki dute

### Mañaria > 7

Etxe gutxien dituen alternatiba aukeratu dute Plan Orokorrearako

### Otxandio > 6

Baserriko produktuen azoka antolatu dute domekarako



## **Herririk herri**

### **Preso eta iheslarien aldeko elkartasun egunak Traña-Matienan**

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Elkartasun asteburua antolatuta dute Abadiñon, euskal preso eta iheslarietako elkartasuna adierazteko eta urtarilaren 10eko Bilboko manifestaziorako deialdia egiteko. Gaur, 22:00etan, esaterako, lau t'erdiko eta binakako pilota partiduak izango dira Traña-Matienan: Lemuno Larunberen kontra ariko da lau t'erdian, eta Berasaluze eta Begoa Elezkanooren eta Ibai Zabalen kontra ariko dira binaka. Txanpota plazatik aterako den auzo martxagaz hasiko dute eguna, bihar, eta bertso bazkaria egingo dute ostean. Gauean, ostera, eskualdeko taldeen kontzertuak izango dira Zaldierrekan: Mocker's, Baske Street Boys eta Ezten Giro ariko dira.

### **Aho batez onartu dute Euskara Plana, lau urterako helburuak jasota**

**ABADIÑO** I.E.  
Abadiñoko Independenten taldeak, Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten azaroko ohiko udal batzarrean 2017ra arteko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Merkataritza eta kirol arloetan, eta familia transmisioan euskararen erabilera bultzatzea dira planaren helburu nagusiak. Datozen lau urteetan hamabost esparrutan bete beharreko helburu orokorrak finkatzen ditu planak, eta baita helburu horiek lortzeko 45 ekintza zehatz ere. Besteak beste, haur jaiaberrien gurasoei zuzendutako kontzientiazio kanpaina, helduentzako euskara eskolak eta Berbalagun programa, esaterako.



Inyektametal enpresako langileek atzo egindako elkarretaratzea.

## **Manifestazioa Abadiñon, bi emakumeren hilketak gaitzesteko, gaur**

19:30erako jarri dute hitzordua, Matienako kioskoan

**ABADIÑO** Jone Guenetxea  
Eguaztenean Abadiñon hilik agertu ziren Mari Luz Alejo Rodríguez eta Amelia Rodríguez Sardon ama-alaben hilketak genero indarkeria kasu bat dela baieztatu zuen eguaztenean bertan Jose Luis Navarro alkateak. Benito Quintairesek, Alejoren senarrak, emaztea eta amaginarreba hil izana aitortu zuela baieztatu zuen Navarrok, Matienan egindako elkarretaratzearen ondoren. "Ustez, sutearena antzerki bat izan zen".

Gertaera honen aurrean, gaitzespen adierazpenak eten barik plazaratu dituzte. Alejo lan egin zuen Inyektametal enpresan elkarretaratzea egin zuten atzo, lankidearen hilketak salatzeke. Era berean, Eusko Legebiltzarra minutu bateko isilunea egin zuen, bi hilketak gaitzesteko. "Uste dugu indarkeria sexista gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen adierazpen larriena dela", irakurri zuen Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentek.

Gainera, Durangon, Iurretan eta Elorrian hilketak gaitzesteko elkarretaratzeak egin zituzten atzo.

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa plataformak gaur arratsaldeko 19:30erako manifestaziora deitu du Matienako kioskoan, *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre egin* lelopean. "Kasu honen krudelkeria aintzat hartuta, gure gaitzespen osoa eta salaketa irmoa egin nahi dugu", adierazi dute plataformako kideek. Kasu honi eman zaion trataera publiko zein mediatikoa ere kritikatu dute. "Salatu nahi dugu, hasiera batetik hainbat kargu publikok, adierazpenek zein komunikabidek gertatutakoa genero indarkeriagaz lotzeko jarritako erresistentzia". Adibidez, herriko alkateak genero indarkeria kasu bat izatea "oso arraroa litzatekeela" esanez egindako lehen hitzak nabarmendu dituzte. Gogoratu dutenez, "Euskal Herrian, urtea amaitzean dela, bost emakume erail dituz-



Eguaztenean hainbat udal ordezkari eta herritar elkarretaratzean bildu ziren. ARP.

te". Plataformaren deialdiagaz hainbat erakundek, elkartek zein sindikatuk bat egin dute: besteak beste, Durangoko eta Atxondoko udalek, Andereak elkartek, LAB sindikatuak eta Emakundek. Izaskun Landaida Emakunderen zuzendaria manifestaziora joango dela baieztatu dute.

#### **Gertatutakoa argitzen**

Zaila zen eguazten goizean eza-gututako datuak elkarren artean lotzea. Goizeko 08:00etan sutea sortu zen, Atxondoko Zuhaitz enpresan, Artia industriagunean. Bertako langileek, lanera sartzean zirela, garrak ikusi zituzten, eta barruan topatu zuten enpresaren jabeetako bat den Mari Luz Alejoren senarra. Hanketatik eskegita ze-

goen, eta Galdakaoko ospitalera eroan zuten berehala.

08:30ean, berriz, Alejoren senide bat sutearen berri ematera joan zitzaionean emakumeak berari, ama-alabak hilik aurkitu zituen indarkeria zantzuarekin. Ertzaintzak hasieratik lotu zituen bi gertaerak, eta hipotesi bi utzi zituen, batez ere, zabalik: genero indarkeria eta kontu garbiketa. Ertzaintzak egun osoa eman zuen ikertzen. Zauritutako gizonari eguerdian senda-agiria eman zioten, eta Ertzaintzak galdeketa egin zion. Iluntzean atxilotu egin zuten giza hilketak delitua egotzita. Atzo bertan Ertzaintzako iturriek jakinarazi zuten, arazo ekonomikoen inguruko eztabaida bat egon daiteke hilketak hauen sorburuan.

#### **Laguntzaileak:**

**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko abenduaren 12a,  
12. urtea - 570. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:**  
Goretti Alonso  
Armendia, Amaia Huarte Basabe,  
Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso  
Esteban Urriaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri  
eta Amaia Ugaldede Begoña.

**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

## Etxebakoentzat neguko aterpea zabaldu dute Errotan

**DURANGALDEA** A. Ugalde Hirugarren urtez zabaldu dute neguko aterpea Tabira auzoan dagoen Errota ostatuan. Amankomunazgoaren ekimena da zerbitzua. “Helburua neguko eguraldiari aurre egiteko nora joan ez daukaten pertsonen lo egiteko leku bat eskaintzea da”, adierazi du Oskar Zarabeitia Amankomunazgoko presidenteak ohar bidez. Gainera, gosaria, afaria eta dutxa ere eskaintzen diete. Ibaizabal kooperatiba elkartearena da ostatua, eta Amankomunazgoak gela bat alokatu dio.

Iaz 101 pertsona hartu zituen aterpeak, eta duela urte bi 79. Hamar pertsonentzat dago lekua, eta, gehienez, hiru gau igaro ditzake pertsona bakoitzak. Gizarte langileek, hala ere, egoeraren arabera baloratzen dute gau gehiago igarotzea beharrezkoa ote den. Eguraldiaren eraginez alerta horia, laranja edo gorria egoten bada, eskaera egin duten guztiei ematen diete baimena, lekuak bete arte.

## Bizkaibusi ongietorri epela egin diote Izurtzan eta Mañarian

Domeka honetan helduko da Bizkaibus zerbitzua Izurtzara eta Mañarira



Mañariarrek eta izurtzarrek ere erabili ahalko dituzte Bizkaibuseko autobusak hemendik aurrera.

**DURANGALDEA** M. Onaindia Urtetako eskaeren ostean, astelehen honetan helduko da Bizkaibus Izurtzara eta Mañarira. Zerbitzu hori barik zeuden Bizkaiko herri bakarrak ziren, eta, Aldundiak egindako linea moldaketei esker, Bizkaibus zerbitzua erabili ahalko dute izurtzarrek eta mañariarrek. Bilbo-Durango linearen luzapen bat izango da; beraz, Durangogaz eta Bilbogaz lotura zuzena edukiko dute. Egunean hiru

zerbitzu bakarrik eskainiko ditu: Mañaritik 06:40an, 07:40an eta 14:40an irtengo da autobusa, eta Bilbotik 15:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Horregatik, Bizkaibus ongietorri epela egin diote Izurtzan eta Mañarian. Aldundiak prentsaren bidez eman du aldaketen berri, baina albiste hau idazterakoan, Aldundiaren informazio ofizialik jaso barik egon dira alkateak.

Luis Ballarin Izurtzako alkateak kritikatu du aspaldi egon

behar zela zerbitzua martxan: “Penagarria da hainbeste urtean autobusa hona ez etorri izana”. Autobusaren maiztasuna aztertu, eta hobetzen saiatuko direla esan du. Endika Jaio Mañariko alkatearen ustez, albiste pozgarria izan da, baina mesfidati agertu da zerbitzua: “Garraio zerbitzu duin bat ipintzera badatoz, ongietorriak, baina, bestela, partxe bat da”.

Asteburuetan autobusik ez egotea ez du ondo ikusten Jaio,

adibidez. Gainera, Durangotik Gasteizerako linea kontuan hartuz gero ere, herritarren beharrak ez direla asetzen uste du. Bere ustez, Bizkaiko eta Arabako aldundiek ados ipini behar ko lukete gaia koordinatzeko. Gasteizerako autobusaren gaia Euskadiko Garraioaren Agintaritzan landu zuten joan zen barikuan, baina oraindik ez dute erabaki zehatzik hartu. Jaiok salatu du Mañariko Udalak batzarrean egotea eskatu zuela, eta ez zuela erantzunik jaso.

### Elorriotik ospitalera

Elorriarrak Bizkaibusen zerbitzuaren aldaketen onuradun izango dira. Izan ere, astelehenetik aurrera Galdakaoko ospitalera zuzenean joateko aukera edukiko dute. Elorrio-Durango linea, Durangotik ospitaleraino –Zornotzatik eta Lemoatik pasatuta– doanagaz batuko dute. Beraz, elorriarrek ez dute autobusez aldatu eta itxaron beharko ospitalera joateko. Astegunetan emango dute zerbitzua, eta Elorriotik 06:45etik 20:45era bitartean orduro irtengo da autobusa.

Garain ere izango da aldaketa bat, Aldundiaren arabera. Durango-Garai linea, autobusak barik, taxi batek egingo du; udalak, baina, ez dauka informazio zehatzik oraindik.

2014ko abenduaren 1etik 31ra

Vialider

lantegietan

# Gabon teknologikoak



## 4

### MICHELIN

#### PNEUMATIKOREN TRUKE

## smart

## phone

## 2

### PNEUMATIKOREN

#### TRUKE

## BLUETOOTH

## ENTZUNGAILUAK

**zoragarri hau eraman ezazu**

4" PANTAILA  
DUAL CORE - 512 MB  
4 GB - 2 SIM TXARTEL  
SILIKONAZKO ZORROA  
5 MEGAPIXEL DITUEN KAMERA  
MICHELIN MOBILITY APLIKAZIOA

Mini USBa - 10 metroko distantzia - 105 gramo - 4 orduko autonomia

Informa zaiten, eta hurrengo helbide honetan bilatu ezazu zure lantegia:

**neumáticos ETXEBARRIA**

Txokoak: 94-634 errepidearen ondoren.  
Tel.: 946 300 030  
Unitate Industrialdia: Materialak Erosketen gunea. Tel.: 946 232 529

Ekainiak 2014ko abenduaren 1etik 31ra izango da helburua. Vialideren kile dute sarrera bidegintza, autoetarako, kaminetarako eta 4x4 autoetarako. MICHELIN pneumatiko 2 edo gehiago erosi gero. Eskaintzaren oinarria [www.vialider.es](http://www.vialider.es) webgunean eta zure Vialider saltokian kontatatu daitezke. Opariaren kalitatea gurei gora-beherakoa da.



# Legebiltzarrak bigarren erizain bat eskatu du larrialdietarako

Beharginek adierazi dute Eusko Legebiltzarraren eskaera bete egin behar dela

**DURANGO** Markel Onaindia Durangoko larrialdi edo arreta jarraituko gunean bigarren erizain bat egon dadila eskatu zuen Eusko Legebiltzarrak joan zen astean, gaiaren inguruan egin-dako batzarrean. Beharginen iritzia kontuan hartu, eta testu bat adostu zuten PSE-EEK eta EH Bilduk, eta PPK ere babes-tu zuen; EAJk kontra bozkatu zuen. Legebiltzarraren erabakiagaz beharginen eskaeretako bat betetzear dago. CCOO sindikatuak azaldu duenez, beharginek pozik hartu dute legebil-

tzarraren eskaera. Euren aldarrikapenek indarra hartuko dutela, baina erabakia bete egin behar dela nabarmendu dute.

Urtetan pilatutako arazoak iazko apirilean egin zuen eztanda. Larrialdietako beharginak sinadurak batzen hasi ziren, euren lan baldintzak hobetu ditzatela eskatzeko. Euren arabera, lan kargak gora egin du azken urteetan, baina lantaldeagaz ez da gauza bera gertatu. Larritzat jotzen zuten, gainera, erizain bakarra egotea. Izan ere, irteeraren bat egotean erizain barik

geratzen ziren anbulatorioan. Egoera horrek herritarren osasunean eragina izan ahal zuela-eta, kezkatuta zeuden. Gero, Osakidetza ordezko erizain bat ezarri zuen, baina beharginak ez zeuden gustura, kanpotik heltzen behar izaten zuten denbora zela-eta. Gainera, leku falta salatu zuten, eta anbulantzia medikalizatu bat eskatu ere bai -ZIU anbulantzia Gernikatik etortzen zen-. Zentroan lekua irabazteko obra egin dute, eta anbulantzia bat ipini dute, baina ez ZIU anbulantzia.



Landakoko arreta guneak beharginek pozik hartu dute albisteak.

## Bonu berezia, Gabon bueltako erosketetarako

Herritarrek 10 euroko laguntza jasoko dute

**DURANGO** M.O. Durango Bonua martxan egongo da gaurtik aurrera. 2014ko urtarileko merkealdirako bonuak legez, aurtengo Gabon bueltako erosketetarako ere bonu bereziak ateratzea erabaki du udalak. 2.000 bonu ipiniko ditu eskuragarri Kutxabanken, gaurtik urtarilaren 5era arte.

Herritarrek 10 euroko laguntza jasoko dute, bost euro ordainduz gero, hamabost balio duen bonua hartuko dutelako.

Aitziber Irigoras alkatearen arabera, merkataritza txikiari eta herritarrei laguntzea da helburua. Kontu korronte bakoitzeko bonu bakarra eskuratu ahal da eta erosketak hamabost eurotik gorakoa izan beharko dela ere azaldu du.

Dendak Bai merkatarien elkartearekin elkarlanean parte da. Guillermo Oarbeaskoa ordezkariak esan du urtarilean 80 bat dendak parte hartu zutela eta bonuak agortu zirela.



Oarbeaskoa, Irigoras eta Iker Ocejia (Merkataritza zinegotzia) prentsaurrekoan.

## 'Spinbike' eta zumba maratoi solidarioak prest

'Spinbike' maratonia Landako II eraikinean izango da

**DURANGO** M.O. Kirola egin eta, aldi berean, solidarioa izan. Hori da Durango Kirolak erakundeak aurten ere proposatu duena. Bihar *spinbike* maratonia egingo dute, 10:00etatik 13:00etara, hiru saiotan. Partaideek hiru euro ordaindu beharko dute, eta jasotzen den diru guztia Asexve elkarteari emango diote. Ezohiko gaixotasun bat aztertzen du elkarte horrek, besikulagaz

zerikusia daukana. Landako II kiroldegian izango da ekimena.

Abenduaren 20rako, bestalde, zumba maratonia antolatu dute. Hori ere 10:00etatik 13:00etara izango da, baina kasu honetan Landako I kiroldegian. Dirua beharrean, partaide bakoitzak kilo bat janari eroan beharko du gutxienez, eta batzen dena JAED elkarteari emango diote. Iazko edizioan 400 kilo janari lortu zuten.

## Trukea, dohaintza eta birziklapena batzen dituen azoka, etzi

**DURANGO** M.O. Azoka berezia jasoko du domekan Durangoko Andra Maria plazak. Izan ere, trukea, dohaintza eta birziklapena batzen dituen azoka izango da. Beraz, hainbat lagunek euren

produktuak trukatu dituzte, beste batzuek doan eman, eta saldu egingo dituenik ere egongo da. 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da, antolatzaileek prentsa ohar bidez azaldu dutenez. "Helburu nagusia ekonomia mota anitzak ikustaraztea da, dauden aukeretako batzuk hurbilduz". Diruaren bitartekaritza saihestu nahi dute, eta bigarren eskuko gaien kasuan prezioa sinbolikoa izango dela aurreratu dute.

## Gabon Jaia antolatu dute abenduaren 20rako

**DURANGO** M.O. Hainbat elkartek Gabon Jaia antolatu dute hilaren 20rako, *Pasatu sugarra* lelopean. Inurri eskaut taldea, Tabirako pastoral barrutia, JAED, Kristau Eskola eta Caritas daude


Merkatu txikia egingo dute arkupean, eta bidezko merkataritza sustatuko dute

sustatzaileen artean. Andra Marian garatuko dira ekitaldiak.

Eguerdiko 12:00etan hasita iluntzeko 20:30era bitartean merkatu txikia egingo dute arkupean, eta bidezko merkataritza sustatuko dute. Arratsaldeko 17:00etarako tailerrak, jolasak zein txokolata da solidarioa prestatu dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, 19:00etan egingo dute ekitaldi nagusia.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!





# Martxan daude geltokiko bigarren sarbidea eta denden gunea

ETSren arabera, geltokiko sarbide nagusia izango dena zabaldu dute Sasikoan



BM supermerkatua zabaldu dute tren geltokiko gune komertzialean.

**DURANGO** Markel Onaindia Durangoko tren geltokiaren eraikuntzan beste pauso bat eman zuten joan zen egunean. Euskal Trenbide Sarearen arabera, sarbide nagusia izango dena zabaldu dute Sasikoa kale-tik. Horretarako, trenbide zahar-rari tarte bat kendu diote, eta bidea libratu dute. Orain arte, Ezkurditik zihoan sarrera eta Askatasun etorbideko igogailua ziren geltokira joateko bideak.

Ezkurdikoaren kasuan, erabiltzaileek kezak ipini izan dituzte: eskailera aldapatsuak aterpe barik daude, eta euria egitean oso labainkor bihurtzen dira. Sarbide zabaldu berrian eskailera mekanikoak ere badaude.

Gune komertziala ere abian jarri dute BM supermerkatua zabaldua. Oraingoan, hori da martxan dagoen komertzio bakarra. 26 langile ditu 1.400 metro karratuko espazioa daukan den-

dak; obrarako bi milioi euro erabili ditu enpresak. BM dendan erosketak egiten dituztenek, lurpeko aparkalekuan doan utzi ahaliko dute autoa.

Gainera, gune horretan komunak daude. Orain arte tren erabiltzaileek ez dute komunikatu edukitoki, eta horregaz lotutako kezak ere ugari izan dira. Ana Oregi sailburuak 2013ko udarako iragarri zuen sarbide berria eta komunak zabaltea.

## Mendibil eta Jasokunde Gabonetako ipuina kontatzen

**MALLABIA** J. Guenetxea Gabonak ate-joka dauden honetan, Mallabiko Udalak hainbat elkartegaz batera egitarau osatua prestatu du hurrengo egunetarako. Abenduaren 20an, areto futbol partiduagaz eta mago batez zabalduko dute egitaraua. Mendibil eta Jasokunde abesbatzek Gabonetako ipuina kontatuko dute abenduaren 21ean, eta Olentzerori gutuna bidaltzeko aukera izango da. Izan ere, ikazkinak, abenduaren 24an, 19:00etan bisitatuko du Mallabia. Umeek oporrak dituztela aprobetxatuta, haur parkea abenduaren 26an jarriko dute. Herriko abesbatzek, berriz, gabon kantak abestuko dituzte, baserriz baserri, abenduaren 27an. Bigarren eskuko produktuen azoka abenduaren 28an izango da. Gainera, Josu Muguruzari buruzko *Zohardia* dokumentala abenduaren 30erako aurreikusi dute. Hurrengo egunetan, herri poteoa, frontenis maratonia, bizikleta ginkana eta ipuin kontalaria izango dira.

## Josalak batzeko kanpaina ipini du Zaldibarko Udalak martxan

**ZALDIBAR** I.E. Atzo abiatu zuten jolasak batzeko Zaldibarko Udalak martxan jarri duen kanpaina. Gaur eta bihar, zein abenduaren 15ean eta 16an aukera izango dute zaldibartarrek euren ekarpenekin beharrezana duten familiei laguntzeko. Udaletxeko beheko solairuan jasoko dituzte jendeak emandako jolasak (bihar 09:00etatik 13:00ak arte, eta abenduaren 15ean eta 16an 08:30etik 17:30era).

Datozen egunetan, udaletxean jasoko dituzte, jendeak emandako umeentzako jolasak

Herritarrek emandako jolasak beharrezana duten familien artean banatuko dituzte, azken urteotan egin izan duten bezala. Gabonen atarian, arazo ekonomikoak dituzten herriko eta inguruko familiei laguntzea dute helburu.




## DURANGOKO MERKATARITZAREN ALDEKO KANPAINA

### Aurreztu gurekin!

- Txartelarekin 5€-ren truke 15€ edukiko dituzu.
- 2014ko abenduaren 12tik 2015eko urtarrilaren 5era bitarteko erosketetan erabilgarri.
- Kanpainari atxikitako Durangoko saltokietan.
- BBKren orotariko kutxazainetan eta edozein kreditu/zordunketa txartelarekin.
- Saltokiak bonu bakarra onartuko du erosketak bakoitzeko.








# Baserriko eta eskuz landutako produktuen azoka domekan

40 postu eta askotariko erakustaldiak egongo dira udaletxe pareko plazan



Udaletxe pareko plazan egokituko dituzte postuak.

**OTXANDIO Joseba Derteano** Domekan, 09:00etatik 15:00etara, baserriko produktuen azoka egingo dute Otxandion, udaletxe pareko plazan, Kementsu elkarteak antolatuta. Gazta, ezti, ortuariak, ogia eta bestelako produktuak egongo dira baserriko produktuak saltzeko postuetan; gainera, bitxigintza eta larrugintzaren inguruko artisautza postuak ere izango dira.

Bestalde, hainbat erakustaldi antolatuko dituzte. Border txakurrekin osatutako erakustaldia egongo da ikusgai, esaterako. Txakurrek ahateak toki batetik bestera eroan beharko dituzte, jabearen aginduak beteta. Erakustaldi hori, plazan ez ezik, Artekaletik zehar ere eroango dute. Beste erakustaldi batean, antzina burdina zelan lantzen zen erakutsiko dute

Irurtzundik (Nafarroa) etorriko diren lau lagunek: burdina gorituko dute, eta, ondoren, forma emango diote kolpeka. Hirugarren erakustaldia, berriz, moztailleena izango da, eta Otxandion bizi den bizilagun bat arduratuko da ardiei ilea zelan moztzen zaien erakustez.

Horretaz gainera, goiz osoan trikitiagaz animatuko dituzte kaleak.

## Diruak balioko ez duen truke azoka antolatu dute zaturako

**OTXANDIO J.D.**

Zapatuan, 09:00etatik 15:00etara truke azoka egingo dute udaletxe pareko plazan, udalak antolatuta. Azokan, askotariko objektuak (arropa, liburuak, musika diskoak eta etxetresnak, adibidez) ez ezik, zerbitzuak ere trukatu ahal izango dira; hau da, autoak konpontzen

Zapatuan, 09:00etatik 15:00etara izango da truke azoka udaletxe pareko plazan

abila denak, haurrak eskolara eroateko prest dagoenak edo azpiegitura elektrikoak egiten dakienak, esaterako, zerbitzu horiek trukatu ahal izango ditu interesatuta dagoen batetaz.

Azokako baldintza nagusia da ezingo dela dirua erabili; ezingo dira objektuak erosi diruaren bidez. Horren ordez, trukea erabili beharko da, negoziatorako nork bere abileziak erabilita.

## Bisita gidatuak plazako ondare arkeologikoak ezagutzeko

**OTXANDIO J.D.**

Otxandioko plazako arkeologia lanek ondorio interesgarriak utzi dituzte. Udal ordezkariak adierazi dutenez, Otxandioren historia laburbiltzen duten Erdi Aroko, Aro Modernoko eta Aro Garaikideko hainbat aztarna agertu dira.

Udalak bisita gidatuak antolatu ditu herritarrentzat zein herritik kanpokoentzat, aztarna horiek ezagutarazteko. Bisita gidatuak hurrengo asteburuan izango dira: abenduaren 20ko zapatuan, 16:00etan, eta abenduaren 21ean, 10:30ean. Txanda bakoitzean 25 lagun egoteko aukera aurreikusi dute. Aurkezpenak euskaraz zein gaztelaniaz entzuteko aukera egongo da.

Izena ematea gomendagarria da, eta datorren astean eman daiteke, udaletxean bertan edo 954 450 020 telefonora deituta (astelehenetik barikura, 08:00etatik 15:00etara). Leku falta egongo balitz, izena eman dutenek lehentasuna izango lukete.

## Betsaide enpresako behargin bat zauritu da

**ELORRIO M.O.**

Eguaztenean lan istripua gertatu zen Elorrioko Betsaide enpresan, eta behargin bat ospitalera eroan behar izan zuten. Izan ere, galdategian mantentze-lanak egiten zebiltzala, makina batek harrapatu zuen langilea. Besoa hartu zion, eta, ondorioz, hezurak apurtu zizkion.

Enpresako arduradunen arabera, bere osasun egoera garapen ona izaten ari da

Enpresako arduradunek azaldu dutenez, goizeko 10:30ean izan zen ezbeharra. Behargina ospitalera eroan zuten anbulantzia, eta han egin zioten ebakuntza. Enpresako arduradunen arabera, bere osasun egoera garapen ona izaten ari da, nahiz eta beste ebakuntzaren bat beharko duen.

## Txintxirrin eraikin berria inauguratuko dute

Pedagogiaren arabera altxatu dute ikastetxea

**ELORRIO Markel Onaindia**

“Eraikin benetan berezia eta Euskal Herri mailan bakarra”. Horrela aurkeztu dute Txintxirri ikastolako arduradunek, prentsa ohar bidez, Haur Hezkuntza ziklorako altxatu duten eraikina. Izan ere, pedagogiaren arabera eta bioeraikuntza irizpideak kontuan hartuta egin dute obra. “Ikastolan aspalditik erabiltzen dugun pedagogia aktiboa garatzeko propio

egindako eraikina da”, azaldu dute. Bioeraikuntzaren irizpideei jarraitzeak ere badu bere helburua: “haurren ongizate fisikoa zein emozionala garatu ahal izatea”. Ikastetxea eraikitzeke auzolanaz baliatu ziren, eta bioeraikuntzaren inguruko ikastaroa ere eskaini zuten.

Bihar egingo dute Txintxirriko eraikin berriaren inaugurazio ekitaldia, ikastolan bertan, 11:30ean hasita.



Eraikin berria egiteko auzolanetako argazki bat.

## Bogotako jantoki komunitarioen proiektuari laguntzeko jaialdia

**ELORRIO M.O.**

Domeka honetan ospatuko da Kainabera gobernuz kanpoko erakundeak urtero antolatzen duen elkartasun jaialdia. Musika eta dantza ikuskizun ugari taularatuko dituzte Arriolan, eguerdiko 12:00etatik aurrera, eta sarreran bildutako

Ikuskizun ugari taularatuko dituzte Arriolan, eguerdiko 12:00etatik aurrera

borondateagaz batzen duten dirua Bogotako (Kolonbia) jantoki komunitarioen proiektuari laguntzeko erabiliko dute.

Guztira, zortzi taldek hartuko dute parte jaialdian: Besaide dantza taldeak, Elorrioko txistulariek, Lourdes ikastetxeak, Arantza eta Pantxok, musika eskolak, + ke kuerdas taldeak, Bixente Beitiak eta plazako dantza ikastarokoek.

## KZguneko ikastaroetan izena emateko aukera eskaini dute

**GARAI M.O.**

KZgunean hainbat ikastaro antolatzen dabiltza, 2015eko otsailetik aurrera garatzeko. Hori dela-eta, udalak izen-emateko aukera eskaini du dagoeneko, eta urtarilaren amaierara arte iraungo du epeak. Ikastaroetan parte hartzeko interesa daukanak udaletxera jo beharko du.

Izena ematen duen jendearen eta bakoitzaren interesen arabera zehaztuko dituzte ikastaroak. Goizez edo arratsaldean izan ahal dira, eta ikastaro bakoitzak hiru partaide izan behar ditu gutxienez. Bestela, ez da talderik osatuko.

Ikastaroetan aukera zabalago dago, udal arduradunek azaldu dutenez. Besteak beste, sare sozialen, Interneten, software librearen, ofimatikaren eta Google Appsen inguruko saioak daude eskura.

Behar beste jendek izena emanaz gero, ikastaroak Garaiko KZgunean garatuko dira, kultur etxean dauden lokaletan, hain zuzen.



## Ana Mari Piedra omendu zuten azokan Izurtzako emakumeek

**IZURTZA** Joseba Derteano Eguraldi kaskarrari aurre egin, eta jende asko hurreratu zen joan zen zapatuan Gaztardogi azokara. Omenaldi bat ere izan zen tartean. Izurtzako emakumeek Ana Mari Piedra durangarra omendu zuten. Piedra Gurutze Gorriko kide izana da, eta, 1980ko hamarkadan, bere laguntzari eta bitartekari-tzari esker hainbat hitzaldi eta ekimen egin zituzten Izurtzan: besteak beste, lehen sorospenari, droga-mendekotasunari eta herentziarako aukerei buruzko ikastaroak antolatu zituzten. Oroigarri bat eta lore sorta bat jaso zituen Piedrak joan zen zapatuan, azoka baliatuta.

Beste omendu batzuk ere izan dira asteen. Astelehenean, Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak Azkonizaga jatetxean egindako bazkarian, Mari Terre Irastorza omendu zuten, urtetan batzordean egindako lanagatik. Beragaz batera beste jubilatatu bi ere omendu zituzten, urteroko ohiturari eutsita: Rafael Ajuria eta Mari Angeles Gorrotxategi.

## Etxe gutxien dituen alternatiba aukeratu dute Plan Orokorrrerako

90 etxebizitza, hiru ekipamendu eta espazio publiko bat eraikiko dituzte Mañarian

**MAÑARIA** Markel Onaindia Azaroaren 21ean eta 23an Hiri Antolamendurako Plan Orokorrrari (HAPO) buruzko herri galdeketa egin zuen udalak, eta azaroaren 28ra arte ere iritzia emateko aukera eman zuen. Guztira, 92 lagunek hartu dute parte galdeketa. Duela urtebete hasitako partaidetza prozesutik sei alternatiba posible ateraziren, eta herritarrek B ereduaren alde egin dute, etxe gutxien

jasotzen dituen ereduaren alde. 90 etxebizitza eraikiko dira, elizaren atzealdean eta herritik Urkiolarako irteera inguruan. Beste eredu bik ere 90 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuten, eta gainerakoek 107, 118 eta 156.

Zerbitzu kulturala edo soziala eskaintzeko ekipamenduei dagokienez, etxeen beheko lokaletan bi gune sortuko dituzte, eta beste handiago bat herrigu-

nean. Beste espazio publiko bat ere jaioko da –plaza edo parkea izan daitekeena–, eta ekipamenduen inguruan kokatuko da.

Herrian erroldatuen %20k hartu du parte galdeketa, eta Endika Jaio alkateak esan du aurreikuspen hobeak zeuzkate. Baina uste du horrek ez diola zilegitasunik kentzen iritzi prozesuari. Planaren aurrerapena onartu, eta idazten hasiko dira 2015ean.



Guztira, 92 herritarrek eman dute botoa Hiri Antolamendurako Plan Orokorrraren inguruko galdeketa.

## Hemezortzi postu ipiniko dituzte domekan, bigarren eskuko azokan

**MAÑARIA** M.O.

Domeka honetan, bigarren eskuko azokaren beste edizio bat izango dute Mañarian. Goizeko 11:00etatik 14:00etara bitartean garatuko da, pilokalekuan, eta hemezortzi postu ipiniko dituzte. Askotariko produktuak egongo dira salgai: adibidez, jolasak, liburuak, arropak eta bitxikeriak.

Parte-hartzaileek azaroaren 28ra arte izan zuten izena

Askotariko produktuak egongo dira salgai: adibidez, jolasak, liburuak eta bitxikeriak.

emateko aukera, eta euro biren truke jaso dute mahaia ipintzeko baimena. Azkenean hemezortzi izan dira azokan parte hartzera animatu direnak.

Profesionalak ez diren herritarrek ondutako produktuak izango dira, etzi, Mañariko pilotalekuan salgai ipiniko dituztenak.



**JESUITAK**  
Durango

San Jose Ikastetxea

San Jose Ikastetxea, Ikastetxea.  
Kurutziaga, 1. Durango

**Tfno: 94 681 00 50**

sanjose@durangojesuitak.org  
www.durangojesuitak.org



Haurtzaindegian izena emateko epea zabalik.

Zuen seme-alabak eta gu, batera haziz

Jakin nahi duzu non eta zelan?

Zatoz gu ezagutzera.

informa zaitez!





# Ekitaldiz betetako jaialdi solidarioa asteburuan, Ogenbarrena auzoan

Bihar eguerdiko Maletatzar Solidarioa lasterketa da ekitaldi nagusienetakoa

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Ogenbarrenako ostalaritza eta komertzioen Hezetasun elkar-teak eta Zornotzako Udalak aste-buru osoa iraungo duen jaialdi solidarioa antolatu dute Ogenbarrena auzorako. Batutako di-ru guztia haurren minbizia-

ikerketara sustatzen duen Peque-ropa elkar-tearentzat izango da.

Ekitaldi nagusia zapatuko Maletatzar Solidarioa izeneko herri lasterketa –bi kilometro– izango da. Lasterketa berezia izango da 12:30ean hasiko dena. Askok mozorrotuta irtengo dira,

eta beste asko eskuan maleta bat dutela. Izan ere, aurreneko 40 korrikalarien artean maleta pi-sutsuena daroanek –gutxienez hamar kilo– irabaziko du lehen saria; bigarren saria mozorro-rik onenari emango diote. Gazte-txoek mailako mozorrik onena duenak Amorebietako jokala-riek sinatutako kamiseta bat eta Athleticekoek sinatutako beste bat eroango du. Edonork parte hartu dezake 2,5 euroren truke. Egunean bertan eskuratu daite-ke dortsala, 10:00etatik aurrera.

Gainera, mediku batek hezur-muin emaille izatearen garran-tziaz informatuko du, horretara bideratutako informazio postu batean. Besteak beste, umeen-tzako tailerrak, puzgarriak eta eskulanak; auto klasikoen era-kusketak; eta eskulangintza azo-ka egongo dira asteburuan.



Pequeropa eta Hezetasun elkarteko kideak alkateordeagaz.

## Aurrekontuetako 400.000 euro enplegua sustatzera

2015eko udal aurrekontuak onartu dituzte

**ZORNOTZA** J.D.

Azken udalbatzarrean Zorno-tzako 2015erako aurrekontuei hasierako onarpena eman zie-ten. EAJren aldeko botoekin onartu ziren aurrekontuak; PSE abstenitu egin zen, eta Bil-duk kontra bozkatu zuen.

Datorren urteko aurrekon-tuen zenbateko osoa 26.470.718 eurokoa da, eta udaleko kutzak 2.246.000 euroko superabita du. Diru kopuru osotik 4.060.144 euro inbertsioetarako erabiliko dute. Inbertsioen zenbatekoari eusteak “erakusten du kudea-keta eraginkorrari esker udalak duen egoera ona”, EAJko Iker Basagoitiren ustez. Pertsonen-gan zentratutako aurrekontuak direla azaldu zuen, eta enplegu neurrietan ahalegin berezia egi-

ten saiatu direla. 400.000 euroko diru atala gorde dute helbu-ru horretarako, iaz baino %26 gehiago; diru hori erabiliko da udalak langabetuen kontratazio zuzena egiteko, tokiko enpresek udalerriko langabetuak kontra-tatzeko laguntzak sustatzeko eta Gaztedi Plana garatzeko.

Bilduko Urko Lopezen esa-netan, “negozia-ke-tetan onartu zaizkigun gauzak azalekoak, partzialak dira, eta ez dakarte aldaketarik, politika egiteko modu baten jarraipena baizik”. Horregatik azaldu ziren aurka. PSEko Antonio Castelletek gaz-teen arloan egin zituen kritika-rik handienak: “Porrot egin du-gu. Ez dugu lonjak erregulatzea lortu, ezta gazteen alokairurako laguntzak zehaztea ere”.

## Gabonetan doluari aurre egiten ikasteko berbaldia

**ZORNOTZA** J.D.

Gabonak ospakizunerako egu-nak dira, baina senitarteko edo hurreko pertsona baten herio-tzak utzitako hutsunea senti-tzen denean, Gabonek handitu egiten dute mina. Soraya Díez González psikologoak min ho-rrri aurre zelan egin jakiteko gakoak eta gomendioak eman-go ditu eguaztenean, 19:30ean, Zelaieta zentroan eskainiko duen doako hitzaldian. Díez aditua da gertuko lagun edo senitarteko bat galdu dutenen kasuak tratatzen. Askok Ga-bonak ez ospatzea erabakitzen dute, baina onena egoerari aurre egitea dela uste du. Gal-dera honi erantzuten saiatuko da: zelan antolatu bera gabeko lehen Gabonak?

## Elkartasun karabanarako elikagaiak batzen hasi dira

**IURRETA** A.U.

Errefuxiatu saharauien kanpa-lekuetara jatekoak bidaltzeko kanpaina hasi du Herria auzo elkar-teak, Iurretako Udalagaz elkarlanean. Iurretako hain-bat lekutan ipini dituzte eli-kagaiak eta konpresak uzteko guneak.

Bilketan, batez ere, arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atu-na, sardinak eta konpresak ba-tzen dituzte.

Ikastetxeetan hasi dira bil-keta egiten, eta abenduaren 17ra arte egongo da aukera Maiztegira eta Juan Orobio-goitiara elikagaiak eroateko. Abenduaren 15etik urtarrila-ren 22ra, berriz, herriko janari dendetan, jubilatuen etxean eta Ibarretxe kultur etxean egingo dute elkartasun karaba-narako bilketa.

## Paper fabrikaren historia batu dute liburu batean

**IURRETA** A.U.

Smurfit Kappa Nervión paper fabrikak 60 urte bete dituela-eta, lantegiaren historia batu dute liburu batean. *Made in Nervión. Zaku-eta-arako kraft paper-fabrika baten historia* da liburuaren izena, eta gaur egingo dute aurkezpen ofiziala, San Agustinen, 19:00etan. Ber-tara, lantegiko beharginak eta behargin ohiak gonbidatu di-tuzte, eta baita Iurreta, Duran-go eta Zornotzako alkateak ere.

Liburua paper fabrikaren sorreratik abiatzen da, eta or-dutik hona izan dituen jabe aldaketen eta fabrika beraren hazkuntzaren berri ematen du. 60 urteotako hainbat argazki ere batu dituzte, liburuan argi-taratzeko.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE**  
PP



### Geltokiak atek ireki ditu

Merkataritza da gure herri ekonomiaren motorretako bat. Izan ere, sektore horrek lanpostu asko sortzen ditu gu-re udalerrian.

Gaur egun, krisiak langa-bezia-tasa zifra historikoetara igo duen honetan, lan eskasia da herritarren ardura nagusia; hori erakusten dute inkes-tek. Horregatik, erakundeek eta, beraz, Durangoko Uda-laren lehen betebeharra horri konponbide bat emateak izan behar du.

Nahiz eta udalak eskumen mugatua duen enpleguaren alorrean, udal gobernuak ez du eskumen mugarik es-pazioak ahalbidetzeko eta ekintzaileen, zein enpresen, komertzioen eta ostalaritza lokalen aldeko baldintzak sor-tzeko.

Esaterako, tasetan eta zer-getan hobariak egin daitezke, Durangoko Alderdi Popula-rrak beti babestu izan duen moduan. Edo, bestela, mer-kataritza jarduera bultzatu beharko lukete udalaren au-rrekontuek.

Horregatik, berri ona da Durangorentzat eta duran-garron enpleguarentzat tren geltokian galeria komertzial bat zabaldu izana. Urtebe-teko atzerapenarekin izan arren, azkenean zabaldu dute merkataritza-gunea, eta, ia ziurtasun osoz, momentu ho-netan hain beharrezko diren jarduerak eta lanpostuak sor-tuko ditu.

Merkataritzarako eta en-plegurako 4.500 metro karra-tuko aukera da, eta horrela ulertu behar dugu duranga-rrak eta EAJren udal gober-nuak.

*\*Erredakzioan itzulia*

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673  
[www.zarateelexpe.com](http://www.zarateelexpe.com)

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



# Inbertsioetarako diru gehiagogaz hasiko du udalak 2015. urtea

Matzagako urbanizazio lanetarako 400.000 euro erabiliko ditu Berrizko Udalak



EAJko zinegotziak, aurrekontuen alde bozkatzeko.

**BERRIZ** Markel Onaindia 5.634.000 euroko udal aurrekontua onartu du Berrizko udalbatzarra. 2014an baino 83.000 euro gehiago izango ditu datorren urtean Berrizko Udalak. Diru gehiago du, bankuekin izandako zorrak kitatu dituelako eta Udalkutxatik diru gehiago jasoko duelako. Arlo gehienetan mantendu egingo dituzte diru

atalak, eta diru gehiago bideratuko dute inbertsioetara.

EAJren aldeko botoekin onartu dute udal aurrekontua. Bilduko eta PSE-EEko zinegotziak abstenitu egin dira. Bilduko Xabi Zalduak Hirigintza Plana egitearen premia azaldu du: “Faltan bota dugu planifikazio gehiagogaz lan egitea”. Orland Isoird alkateak erantzun dio

legegintzaldia amaitu aurretik helduko diotela gaiari. PSE-EEko Francisco del Pinoren usteetan, aurrekontuak “errealitate-ara gehiago egokitu zitezkeen”.

Inbertsioetarako 842.000 euro izango dituzte 2015ean. Proiekturik handiena Matzagako urbanizazioa izango da, eta 400.000 euro bideratuko dituzte horretara. Eituako auzobidea konpontzeko 192.000 euro erabiliko dituzte, eta Kultur Etxeko altzariak erosteko 11.000 euro. Berrikuntzen artean, Berrizko turismoa bultzatzeko aplikazio bat sortu gura dute, eta herriko argazki zaharrak batzeko webgune bat ere bai.

## Herri batzarrak

Inbertsioei dagokienez, partaidetza foroetan 150.000 euro nora bideratu pentsatzen dabilta. Atzo herriguneko inbertsioen gaineko azken batzarra izan zuten, eta eguaztenean egingo dute auzoetako azken foroa.

Konponketa epeka ordainduko dutela adierazi dute Pastoral Batzordeko kideek, eta herritarren laguntza eskatu dute diru hori batzeko. Dirua helarazteko, kontu korrante bat ipini dute herritarren eskura, eta mezatako diru bilketetan ere horretarako dirua eman gura bada, gutunazal batean *organoa* idatzita egiteko gonbidapena egin dute.

## Barraskiloreko okupazioaren urteurrena gogoratuko dute

**ATXONDO** J. Derteano

Urtebete joan da Barraskiloreko etxebizitzak okupatu zituztenetik. Bertan bizi diren lagunek urte honen balorazioa jasotzen duen informazio orria zabaldu dute herrian, eta urteurrena gogoratzeko zapatuan antolatuko duten jaira gonbidatu dituzte herritarrek.

Zapatuan, 14:30ean, herri bazkaria egongo da Barraskiloren, eta 18:30ean triki-potea egingo dute herriko taberna eta kaleetatik. Azkenik, 22:00etatik aurrera The Lasai, Barbiturikos, B.E.K eta DJ Abaunza talde eta musikarien kontzertua egongo da gazte-txean.

Iazko azaroan etxebizitzak okupatu zituztenetik hona hainbat lan egin dituztela azaldu dute: zorrotan eta saneamendu osoa egokitu dute, eta urez betetzen zen garajeari konponbidea bilatu diote, adibidez. Orain hil batzuk, Barraskilorearen aurkako prozesu juridikoa hasi zela ere gogoratu dute. Aurretik beste inoiz egin moduan, berririo errepikatu dutenez, “ez dugu trabarik jarri nahi, benetan arazoa konpontzeko pausoak ematen badira”, eta baldintza horiek errepikatu dituzte: zor duten dirua herriari itzultzea, amaitu bako proiektuari konponbidea ematea eta amaitu bako etxebizitzei dagokien erabilera ematea.

> DURANGALDEA ASTEON

## #365ipuin: sari banaketa ekitaldia

**DURANGO** > Eguaztenean, abenduak 17, Berbaro taldeak antolatutako #365ipuin ipuin laburren lehiaketako sari banaketa izango da, Platearuenean, 19:00etan. 457 ipuin aurkeztu dituzte, eta Durangaldeko hiru kultur gilek erabakiko dituzte irabazleak zeintzuk izango diren. Txokolatada egongo da ekitaldiaren ostean.

## Denda solidarioa Komentukalean

**DURANGO** > Azken urteetan egin den moduan, San Antonio-Santa Rita ikastetxeko ikasleek Denda Solidarioa ireki zuten atzo, Komentukalean. Abenduaren 12an, 15ean, 16an eta 17an egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara. Multinazionalen menpetik irteten, eta bidezko merkataritza sustatzea dute helburu.

## Izotz pistarako izen-ematea hasiko dute

**DURANGO** > Izotz Gunea abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra egongo da irekita. Patinatzeiko ikastaroetan izena emateko epea abenduaren 15era arte dago zabalik Pinondo Etxean. Bi eguneko bost ikastaro eskainiko dituzte; Abenduaren 26an lehena eta urtarrilaren 4an azkena. Taldeak adinaren arabera banatuko dituzte.

## Organoa konpontzeko diru eske dabil parrokia

**BERRIZ** Amaia Ugalde

Parrokiako organoak konponketa lanak behar dituela eta, diru bilketa kanpaina hasi du Pastoral Batzordeak. Ia ehun urte ditu organoak, eta arazo ugari

dauzkala jakinarazi dute: piezak aldatzeko, organoak garbitzeko eta hainbat akats konpontzeko premia duela azaldu dute. Konponketak egiteko 15.570 euro beharko direla kalkulatu dute.

## Iritzia

### Emakumeon aurkako indarkeriarekin amaitu

Atzo Abadiño asaldatuta jaiki zen, eta, horrekin batera, Euskal Herri osoa.

Hori dela eta, Durangaldeko mugimendu feministako kideek, gertakari anker hau salatu nahi dugu, gogoeta hau jendarte osoarekin partekatu nahi dugu.

Bi emakume, ama-alaba, haren gizon eta suhiak haien etxean erail zituela jakin genuenean, amorruek inbaditu gintuen: haserrearen haserre, “beste behin ere” oihukatuz. Izan ere, azken bolada honetan, gustatuko litzaigukeena baino askoz ere gehiagotan batu behar izan gara feministok eta gure borrokarekin bat egiten duten aliatuak, emakumeon kontrako indarkeria salatzeke eskualde honetan.

Ez gaitezen ohitu. Ez gaitezen konformatu. Ez dezagun onartu justifikazio edo zuriketa gehiago, erasotzaileak seinalatu nahi ditugunean!

Eraso gehiagorik ez!

Emakumeon aurkako beste eraso honen aurrean, Euskal Herriko Mundu Martxaren Plataformarekin bat eginez, hauxe adierazten dugu:

- Nazkatuta gaude. Haserre ez, oso haserre. Beste behin ere, emakumeon aurkako indarkeria kasu baten aurrean gaude, eta, gainera, kasu honen krudelkeria aintzat hartuta, gure gaitzespen osoa eta salaketa irmoa egin nahi dugu ezer baino lehen.

- Kontziente gara emakumeon aurkako indarkeriak ez duela etenik, eta horren aurrean ezin dugu gure amorruek, nekea eta haserre basterik adierazi.

- Salatu nahi dugu, beste behin ere, kasu honi eman zaion trataera publiko zein mediatikoa. Salatu nahi dugu hasiera batetik genero indarkeriarekin lotzeko

jarritako erresistentziak hainbat kargu publiko, adierazpen zein komunikabideengatik. Besteak beste, herriko alkatearen lehen hitzak “oso arraroa litzatekeela” esanez, edo hainbat telebista katetan bestelako teoriari emandako pisua “gizon bakar batek hori dena ezin egin” zezakeela argudiatuz.

- Bada, gogorarazi nahi dugu, tamalez ez dela hain arraroa, eta berriz ere, ardua publikoa duten horiei zuhurtziaz jokatzeko ardura exijitzen diegu.

- Azken aste hauek gogorak izaten ari dira emakumeon aurkako indarkeria dela medio, eta ezin dugu ahaztu Euskal Herrian, urtea amaitzear dagoela, 5 emakume erail dituztela dagoeneko, Bilboko gizon batek bere bi alabak erail dituela Asturiasen berriki, eta egunero dugula bortxaketa, eraso eta abarren berri.

Beraz, ozen diogu: nazkatuta gaude, eta ez gara isilduko! Emakumeok aske bizitzeko eskubidea dugulako,

Elkarretaratutara deitu dugu abenduaren 12rako, ostiralerako, Euskal Herriko herri eta hiriburuetan; eta, bereziki, ostiralean bertan, 19:30ean, Matienako Traña plazatik irtengo den manifestaziora joateko deialdia luzatu nahi dugu (Bizkaiko mobilizazio guztiak Matienako manifestaziora bideratuko dira).

Durangaldeko Mugimendu Feminista

Itsaso Gangoitia Mazorriaga, Nerea Lersundi, Maite Castro Andreu eta Ainhua Urrangoetxea Gezala



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



## **Berbaz**

**Bego Madariaga Bordegarai** | Gardaberako psikologoa | Portugalete, 1980

# “Ikasleak gehien arduratzen dituen lan elkarrizketa izaten da”

Lanerako prestakuntza ikastaroak ematen ditu Bego Madariaga psikologoa Behargintzan, urte osoan



**> BERBAZ** Jone Guenetxea  
Lana bilatzen jardutea berez da lan bat. Baina, denbora luzez hainbat ate jo eta bat bera ere zabaltzen ez dela ikus-tean, egoera zaildu egiten da. Lan merkatuan geroago eta hautaketa prozesu luze eta zehatzagoak gairitu behar izaten dira, eta arlo horretan inprobisaziorako ez dago tarterik. Proba horiek gairiditzeko erremintak ezagutu eta bakoitzaren buruarengan konfiantza berreskuratzeko lanerako prestakuntza ikastaroa ematen du Bego Madariaga psikologoa Durangoko Behargintzan.

Zein da Amankomunazgoaren eskutik ematen duzun ikastaroaren helburua?  
Kolektibo askori zuzendutako ikastaroak ematen ditugu. Kasu honetan epe ertain eta luzeko

langabetuei zuzendua dago. Helburu nagusia da zer puntutan dauden aztertzea. Egoera horretara zerk eraman dituen ikustea da asmoa. Autoanalisiaren bidez, baliogarri egiten dituzten eta lan merkatuaren aurrean posizio hobe batean jartzen dituzten kompetentziak bilatzen ditugu. Norberarengandik hasten gara lan elkarrizketei aurre egiten, hori baita gehien arduratzen dituen.

**Zer arlo lantzen duzue?**

Gaitasun pertsonalak lantzen ditugu. Hau da, lan bat bilatzen hasi aurretik zer egin behar dut? Zelako gogoia izan behar dut? Era berean, komunikazioa lantzen dugu, lan elkarrizketei aurre egiteko. Talde-lana ere garrantzitsua da, elkarren artean kontaktuak egiteko: orain hain ezaguna den *networkinga*. Esperientzia pertsonalak eta profesionalak

partekatzen dituzte, eta hori oso lagungarria da, batzuetan bakarrik sentitzen direlako. Eta hori guztia motibazioagaz lotuta dago. Helburu horiek lortuta ikastaroak arrakasta izango luke. Izan ere, gaur egun lana aurkitzea beste kontu bat da.

**Proba hori zelan prestatzen da?**

Hautaketa prozesu osoa zertan datzan azaltzen diegu. Oso ohituta gaude kanpotik ikustera. Eskaintza bat ikusten duzu: adibidez, denda baterako arduradun bat behar dela, bi urteko esperientziagaz, formazio jakin batez eta Durangon bizi dena. Hori irakurri, eta niri buruz hitz egiten dabilzala sentitu dezaket. Baina gero ez zaituzte hartzen. Zer gertatu da hor? Saiatzen gara azaltzen prozesua ez dela hain sinplea, eta beste aldean dagoe-nak ikusten duena eurek ere

ikus dezaten ahalegintzen gara. Proba horietarako prestatzen saiatzen gara.

**Proba horiek zelan prestatu daitezke?**

Curriculum eta aurkezpen gutun egoki bat izatea garrantzitsua da. Orientazio zerbitzuak badaude, gezurra dirudien arren, geroago eta gehiago prestatu, hobeto. Elkarrizketak eta talde dinamikak prestatzen ditugu.

**Lan hautaketak gero eta espezializatuagoak al dira?**

Orain dela urte batzuk ohikoa goa zen lan jakin batzuetan galdere sorta bat egin, eta gero lana eskuratzea. Gaur egun, ostera, proba luzeak egiten dira. Lehen-go egunean muturreko kasu bat azaldu nien ikastaroko partaideei. Azafata bat jarri zuten gela txiki batean, eta pertsona bat bat-batean mahai gainera igo zen. Ez da ohikoa, baina batzuetan gertatu daiteke. Normalean, talde dinamikak, psikoteknikoak, maila probak eta elkarrizketa pertsonalak egiten dira.

**Zein arlotan jarduteko egiten dituzte proba horiek?**

Lehen errazagoa zen supermerkatu batean sartzea, baina orain denek prozesu hori guztia jarraitzen dute. Okindegien frankiziek orain arte profil komertzial bat eta esperientzia bat edukiz gero, hartu egiten zintuzten. Orain, proba horiek egiten dituzte, bakoitza zelakoa den ezagutzeko. Beraz, bakoitzaren irudi onena ematen saiatzen gara, baina gezurrik esan barik.

**Zuen ikasleek zer profil dute?**

Denetarik dago. Lehen, ofizioetan oinarritzen zen profila, baina orain zabaldu egin da. Orain, injineruak eta abokatuak ere etortzen dira, adibidez. Goi mailako titulazioa duen geroago eta jende gehiago etortzen da.

**Langabezia dauden pertsonen zer premia izaten dute?**

Batez ere, motibazioa behar dute. Egunean hamar curriculum batatzen dituzte epe luzean, eta langabezia jarraitzen dute; horiek bultzada bat behar dute. Gainera, lan elkarrizketetarako presta-

tuta egon gura dute. Sarritan ez diete deitzen, baina dei hori jasotzen badute, proba hori ondo egiteko pausoak ezagutu gura dituzte. Talde dinamikak jarduten dugun arren, banakako tutoretzak ere egiten ditugu, eta batzar horietan bakoitzak bere galderei erantzutea nahi izaten dugu.

**Zure ustez, zerk motibatzen ditu ikasleak?**

Eskatzen diegun autoanalisiak. Ahulguneak aurkitu arren, bakoitzak duen balio erantsia bilatzeak motibatzen ditu. Horrek jabekuntzan laguntzen du.

“*Supermerkatu batean lanean hasteko hautaketa prozesu bat jarraitu behar da*”

“*Ahulguneak izan arren, bakoitzak duen balio erantsia bilatzeak motibatzen ditu*”

Badakitelako ikastarora etorri ez direnek baino gehiago dakitela. Elkarrizketa bat badute, bata edo bestea erantzun behar dutela jakitea da gakoa. Ezagutza teknikoek segurtasuna ematen diete. Hori guztia paktikan jartzeko gogoz irteten dira.

**Autoestimugaz zerikusi handia izango du.**

Bai, eta langabezia geroago eta denbora gehiago egon, motibazioa galduta etortzen dira. Denbora galtzen dabilzala sentitzen dute. Baztertuak sentitzen dira, eskatu dituzten elkarrizketetatik ez dietelako deitzen. Saiatzen gara kanpotik ikuspegi objektibo bat ematen eta beste alternatiba batzuk bilatzen.

**Ikasleek lan merkatua zelan ikusten dute?**

Oso beltz ikusten dute. Badaude 53 urte ingurukoak, eta adinaren kontra borrokatzea zaila da. Nagusienek uste dute beraien adina oztopo bat dela lana aurkitzeko. Aldi berean, gazteenek ikusten dute gazteegiak eta esperientzia bakoak direla.





# JATETXE GIDA

ÑAM!



## LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

**Tel.: 946 218 122**

Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
**www.lapikodurango.com**

ÑAM!



## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

**Tel.: 946 826 246**

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

**Tel.: 946 030 300**

Eguneko menua astelehenetik zapatara. Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

**60€**  
**bikoteko**  
(BEZa barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

**Tel.: 946 824 077**

Karta. Txuleta errea. 75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



## IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA  
**www.ibarra-sagardotegi.com**

**Tel.: 946 731 100**

Egunero zabalik.

Gure upategian egindako sagardoa.

Aparkaleku pribatua eta jolastokia.

Zozketako irabazlea: **Alberto Diez**, zorionak!



# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

**Oreka**  
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA  
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin  
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,  
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...

Iturriza, 44 - behea ezkerre  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUBARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEA

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PODOLOGIA

**JON GERRIKAETXEBARRIA**

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**  
PODOLOGOA

**AINHOA ELORZA**  
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

**Laser berria:**

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

## OPTIKA

**keinuu**  
optometria zentroa

**ZENTRO OPTIKOA**

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren  
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

## PEDAGOGIA

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



**Angel Calvete Zumalde** | Eskultore eta margolaria | Durango, 1958

## “Errealitatea, kasu honetan basoa, inoiz margotu ahalko duguna baino askoz gehiago da”

Margo erakusketa ipini du Angel Calvete artistak Zornotzako Zelaieta zentroan

**> PINTURA** Itsaso Esteban  
**Zelan sortu da proiektu hau gauzatzeko aukera?**

Orain arte eskulturan pinturan baino askoz gehiago aritu izan naiz, eta sinbolismoan eta surrealismoan mugitu izan naiz gehiago. Nire estiloa ez da hau, baina mendia eta basoa oso gustuko ditut, eta horrek eroan nau egitasmo hau martxan jartzera.

**Zein izan da helburua?**

Paisaien bitartez sentimendu batzuk transmititu nahi ditut. Malenkonioa, bakea, bakardadea, lasaitasuna sentitzen dut basoan nagoenean, eta, hain justu, horiek dira helarazi gura ditudan sentsazioak; han ez dago tentsio edo estresik, eta horra eraman nahi dut ikuslea. Ez dut nahi ikuslearen begirada koadro bakoitzean zazpi edo zortzi milioi hosto dauden pentsatzen zentratzea. Ikustera datorrenaren barrua harago joatea nahiago dut.

**Zer teknika erabili duzu?**

Bi teknika erabili ditut erakusketan dauden koadroak egiteko: tamaina handienekoak pintura akrilikoagaz egindakoak dira, eta formatu txikiagoko marraz-

kiak tinta txinatarragaz egin ditut. Olio baina gehiago gustatzen zait akrilikoak, disolbatzaileak erabiltzea ez dudalako baxteregoko. Baina akrilikoak ez dauka olioak besteko indarrik, eta hosto bakoitza egiteko margo geruza bat baino gehiago erabili dut. Tintagaz egindako koadroak askoz detaile gehiagokoak dira.

**Eskulturatik pinturara zergatik egin duzu jauzi?**

Eskultoretzat daukat nire burua, baina, bestalde, ez dut ulertzen bere burua artistatzat duena diziplina batera bakarrik mugatzea. Errenazimentuan artista zer zen ulertzeko zuten modua dut gogoko. Margotzea bakarrik ez, idaztea ere gustuko dut, esaterako. Artistak osoa izan behar du.

**Errealitatearen antz handiena duen lana egiten saiatzen zara?**

Egin izan ditut koadro abstraktuak ere, baina, egia esan, gehiago asebetetzen nau erreallismoak. Harrigarria izan badaiten ere, nire ustez, erakusketa honetako koadroak abstraktuak dira: koadroetan basoak daude, enbor sikuen xehetasunak, haitzetako pitzadurak, goroldioak...

Abstrakzio errealista da, izan ere, zuhaitz bati errealtatean dauzkanak baino 700.000 hosto gutxiago margotzeko askatasunagaz dihardut.

**Argazkietatik abiatuta egin dituzu marrazkiak?**

Bai, lekuak aukeratu, argazkiak egin, eta horietan oinarrituta egin ditut marrazkiak. Zuhaitz hori dagoen lekura joateko hiru ordu behar ditut, eta ezin dut materialekin hara-hona ibili. Hori bai, argazkiak egiteko, zuhaitzen hostoak nik nahi bezala egoteko zegokion urtarora arte itxaron behar izan dut, eta nire koadroan islatu gura nuen argia zuen argazkia lortu arte saiatu. Baina errealtateak gainditu egiten zaitu beti, eta lan honi umiltasunez baino ezin zaio ekin. Nik adarrak, hostoak eta goroldioa mimo handiagaz margotu arren, paraje hura ikusita, gutxi irudituko zaigu beti. Basoa askoz gehiago da guk inoiz margotu ahalko duguna baino. Nire ustez, teknika perfektua izatea baino garrantzitsuagoa da oinarrian edo atzean dagoena: ikusleak jasotzea gura nukeena transmititzea.

**Ikusi duzu bisitariek jaso dutela erakusketaren mezu hori?**

Bai, eta hainbatek esan didate irudiek bakea transmititzen dutela eta basora sartzeko gogo ematen dutela. Koadroak harapatu izan balitu bezala geratu direla esan didate, zer ordu den ere ahaztu egin zaiela.

**Zer darabilzu orain buruan?**

Azken koadroa duela hogeitau urte amaitu nuen. Baliteke bide honetatik ez jarraitzea; izan ere, hainbeste hostotxo marrazten, kontsolatuta geratzen zara! [Barrez]. Udaberrira arte, baina, ez naiz ezertan hasiko: egiten dudanak gogoeta handia dauka atzean, eta hori ezin daiteke inprobisatu. Oso pentsatua dago.

la bertan. Eskuagatzen egindakoak dira pintura erakusketa honetarako dokumentaziotzat erabili dituen argazkiak ere.

Burgos eta Karrantza arteko Ordunteko mendietakoak dira erakusketako beste paisaia batzuk. Sarritan joaten da Calvete inguru horretara ere. “Benetan leku basatia da hura; ehunka urte dituzten pagoak daude; baita oreinak eta otsoak ere”.

Koadroetan islatutako hiru garren kokagunea, oster, Burgos, Errioxa eta Soria arteko Demanda mendilerroa da; bertan ikusitako ihartutako haritz enbor batzuen marrazkiak ere badaude erakusketan.

Angel Calvete artistak Zornotzan aurkeztu duen bakar-kako lehenengo erakusketa da *Basoa eta bere esentzia*, eta abenduaren 20ra arte egongo da ikusgai Zelaieta zentroan.

## Pagadi eta harizti kutunen irudiak eta sentsazioak margotu ditu

Bereziki maite dituen hiru basotan egindako argazkiak hartu ditu oinarritzat Angel Calvete artistak, erakusketako koadroak margotzeko



Erakusketako margolanik adierazgarrienetako bat.

Angel Calvete margolariak kontatu du zazpi hilabete eman zituela albiste honetako argazkiak agertzen duen koadroan lan egiten: “Hori da erakusketa honetako koadro esanguratsuenetariko bat”, dio egileak.

Hiru lekutako paisaiak dira *Basoa eta bere esentzia* erakusketan batu dituenak: Eskuagatz inguruko pagadi karstiko bateko irudiak dira koadroetan agertzen direnetariko asko. “Baso magikoa” deitzen dio artistak inguru horri, eta azaldu du gaztetan txakurragaz egun batzuk pasatzen egondakoa de-

**Eskulturari helduko diozu?**

Oso alboratuta daukat, denbora asko eta dedikazio handia eskatzen duelako. Diseinu industrialak dut ogibide, baina badut eskultura tailer bat Zornotzan. Egia da eskultura dela gehien gustatzen zaidana, baina ezin diot eskatzen duen dedikazioa eskaini.

**Familian hainbat eskultore eta margolari izan dituzue.**

Nire arbasoak eskultore eta margolariak ziren, eta tradizio horrek asko eragin dit. Nik egiten dudanak ez dauka meriturik [barrez]; genetikoa da, barruan neraman. Oñatiko aitiba marmolaria zen, esaterako. Autodidakta izan naiz, eta Zornotzako Lurkoi arte tailerrean hasi nintzen artea lantzen, 70eko hamarkadan; adibidez, zeramika, margolaritza, argazkigintza eta bideogintza irakasten genituen tailer horretan.





Txelu Angoitia.

## 150.000 lagunek sorkuntzaz, umorez eta kulturaz bete dute Durango

Helburuak beteta, 49. Durangoko Azokaren balorazio positiboa egin du Gerediaga Elkarteak

Egun euritsuak izan ditu 49. Durangoko Azokak. Hala ere, jendea hurreratu da Durangora, eta, antolatzaileek esan dutenez, iaz baino gehiago. Astelehenean, egun bat falta zela, Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidentea adierazi zuen iazko kopuruak parekatu dituztela. Faltza ziren asteleheneko datuak gehituta, guztira, 150.000 lagun etorri da aurten Landako Gunera.

Landako Gunea jendez beteta ikusi da hasierako egunetik. Eta lehenengo egun horretan igarri zen gehien. Iazkoagaz alderatuta, bikoitza izan delako ikasle kopurua. Horietako askok, guneetako ekitaldietan parte hartzeko aukera ere izan dute. Baina Landako Gunea eta barruko guneak (Kabi@, Areto Nagusia, Azoka TB) ez ezik, gainontzeko espazioak ere jendetsuak izan dira: Saguanbara, Ahotsenea, Irudienea, Platerueña eta Szenatokia.

Azokazaleak Durangoko Azokako egitarauak eskaintzen zizkion proposamenetan aurkitu du babesa. Antolatzaileek adierazi dutenez, igarri dute bisitariak zer antolatuta dagoen jakinda joan dela. Eta izan dira euriaren aterpe bila joan, eta

film, liburu, disko edo egitasmoren bat aurkitu dutenak. Izan ere, aurtengo edizioan giroa barruan egon da. Kaleetan ez da ibili aurreko urteetako jendetza. Euritakoak zabalik, alde batetik bestera aterpe bila zebilen jendea izan da bakarrik.

### Beteta

Kaleak hutsik, baina Landako erakustazoka, guneak eta tabernak beteta egon dira

Dena dela, Durangoko tabernari eta ostatu jabeak pozik azaldu dira. Urtero legez, ostatuak, hotelak, aterpetxeak eta nekazaritza turismo etxeak beteta egon dira barikutik astelehenera. Tabernak ere jendez gainezka egon dira. Salmenta iazkoaren antzekoa izanda, azokatik gertu dagoen taberna batean ogia normalean baino sei bider gehiago behar izan dute, eta beste batean zazpi orduan hemezortzi kilo kafe gastatu dituzte.


Baina “zenbat?” galderaz harago, Gerediaga Elkarteak zelango edizioa izan den ere azpimarratu du. Azokak entzun egin duela, azokan berba egin



Txelu Angoitia.



Txelu Angoitia.



Txelu Angoitia.



dela, azoka bizi egin dela, azoka euri az parte ilusio, umore eta kultura disfrutzeko gogoz busti dela, eta azoka sorkuntzaz bete dela azpimarratu dute.

Izan ditu, bestetik, nobedade nagusi bi aurtengo edizioak: Autoekoizleen Plaza eta Gogoetaren Plaza. Lehenengoari dagokionez, hamasei autoekoizleren artean partekatutako espazioa izan da. Amaieran, balorazio ona egin dute partaideek eurek. Euren buruak ezaugarazteko plaza aurkitu dutelako, publikoagaz harremana estutzeko gunea izan delako eta salmentak ere ondo joan zaizkielako. Gerediaga Elkartetik, datorren urtean ere apostuari eutsiko diotela nabarmendu dute.

Gogoetaren Plazak ere kritika onak izan ditu. Egin diren bederatzi saioetan elkarrikizketek, aurrez aurreko solasaldiek eta mahai inguruek publiko aldetik erantzun ona izan dute. Hizlariak ere gustura sentitu direla adierazi dute, eta sektoreko eragileek hausnarketarako tartearen beharraz hitz egin dute. Horregatik, datorren ediziorako hobetu beharrekoak hobetu, eta berriro egiteko asmoa agertu du Gerediaga Elkarteak.

Durangoko Azoka osatzen duten gune guztietako arduradunak ere pozik agertu dira edizio honen amaieran. Denen izenean Lutxo Egia Ahotseneako koordinatzaileak esan du "Durangoko Azokan sortzaileak eta publikoa parez-pare aurkitzen direla, horrek izaera berezia ematen diola Durangori, eta, horregatik, sortzaileek euren leku gisa sentitzen dutela azoka".



Txelu Angoitia.



Txelu Angoitia.



Txelu Angoitia.



Txelu Angoitia.



> **DANTZA** Itsaso Esteban

Eguberrietako dantzazale eguna ospatuko dute Aiko dantza taldekoek eta eurekin ikasten dabiltzan dantzazaleek bihar, Durangon. Andra Marian hasiko dute egitaraua, 13:00etan, sokadantza emanaldiagaz. Ondoren, bazkalordura arte kalejiran ibiliko dira. Plateruenean ospatuko dute bazkaria, eta hantxe izango dituzte, gero, erromeria eta goatekea.

Sabin Bikandi txistulariak, Alvaro García gitarrikak, Arkaitz Miner biolinistak eta Asier García perkusionistak jarriko dute erromeriarako zuzeneko musika. Gainera, Bizkaiko Gaiteroak taldea, Roberto Etxeberrria soinu-jolea eta Asier González albokaria ere gonbidatu dituzte eurekin jotzera. Bestalde, Patxi Laborda, Larraitx Artetxe eta Josu Garate ibiliko dira Durangon elkartzen diren dantzazaleei jarraibideak ematen.

Durangoko biharko hitzorduan 200 lagun inguru elkartzea espero dute antolatzaileek. Jarraian parte hartu gura duenak

## Eguberrietako dantzazale eguna ospatuko dute Durangon, bihar

Aiko taldeak antolatu du Platerueneko dantzazeleentzako biharko ekitaldia



Andra Mariko eta Platerueneko ekitaldietan 200 dantzazale elkartzea espero dute.

Durangoko Plateruenean eskuratu ahalko du sarrera 20 euro ordainduta; Dantzaldi Ibiltaria programako ikastaroak ematen

dituzten gainontzeko lekuetan ere erosi ahalko dira sarrerak.

Durangoko biharkoaz gainera, urtea amaitu orduko beste

bi erromeria ere antolatu ditu Aiko taldeak: hilaren 19an, Bilbon eta, 26an, Ondarroan izango dira saioak.

**GEURE DURANGALDEA**

**FERNAN RUIZ**

Barbaroko kidea

**Krisiaren onurak**

Hotzari beldurrik ez eta, berunezko zerupean, etxe ondoko kale kantoian gelditu dira berbetan, umeei eskolako ateraino lagundu ostean. Sarri ikusten ditut han. Lehen tabernara joaten ziren kafe baten aitzakian. Aldamenetik pasatzean, belarriak erne, "kokoteraino nago garaiotako abade itxurako eskale modernoekin, etxe barruraino sartzen zaizkigu euren panfletoeekin...". Kito. Hortik aurrerakoak neuk igarri behar. Zaila. Eta ondokoa otu zait. Bati baino gehiagori egiten zaio gogaikarri udazkenak neguarekin bat egiten duen sasoi hau. Behar batek edo besteak eragindako eskekoen desfile etengabea izaten da pasarela ezin atonduagoan. Bihozberatzeko-edo, kaleak eta bazterrak dotore janzten dizkigute, estetika ezagun/onartu bat nagusitzen zaigu, nahitaez. Pozikibity (pozik+positivity+activity) ekimenaren eran aurkeztu digute, argitsu, koloretsu, baikor, jai giroan... Jarrera aldarazteko proposamen errespetagarria bezain lotsabakoa.

Bestalde, gizartearen ditugun arazoak direla-eta, inoiz baino elkartuago ari garela dirudi, bai arlo eta helburu batzuetan, behintzat: ugarituz doaz eztabaida foroak, gogoetarako guneak, auzolanerako eta proiektuei laguntzeko deiak... Bolada txarri aurre egiteko ekimen solidarioak ere nonahi ikus ditzakegu. Krisiaren onurak; betiko bitez!

Iruzkina: 2015ean Eusko Jaur-laritzak 6,6 milioi euro gastatuko ditu langile publikoak euskalduntzeko. Euskararen Legea 1982an onartu zen; lehen plangintza 1990-1995 epealdian egin zen honako helburuagaz: "Administrazioko langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetan jarduteko". Krisiaren hanturak?

> **KRONIKA** > **BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA, AZKEN FINALAURREKOA**

## Zornotzan hiru bertsolari sailkatu dira txapelketako finalerako

Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak kartzelan egin zuen ariketarik onena

> **AMAIA UGALDE**

Arkaitz Estiballesek irabazi du #Josi Bizkako Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoa. Domekan izan zen saioa, Zornotzan, eta bertatik hiru bertsolari sailkatu dira

abenduaren 20an Bilboko Miribillan jokatu den finalerako: Estiballes bera, Jone Uria eta Oihana Bartra. Eurekin kantatuko dute Etxahun Lekuek, Iratxe Ibarrek, Onintza Enbeitak, Fredi Paiak eta Xabat Ga-

lletebeitiak.

Zornotzan, 700 entzule inguru batu ziren Amorebieta IV.a pilotalekuan. Azken txanpa zen, eta jakin-mina nagusi: Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean nork kantatuko duen

erabaki zen Zornotzan.

Saio bizia egin zuten bertsolariak, eta finalerako sailkatu dira hiru. Arkaitz Estiballesek lortu zuen puntu gehien (499,5), eta Jone Uria (496 puntu) eta Oihana Bartra (478,5 puntu) ere sailkatu dira. Durangaldetik, Garikoitz Sarriugarte izan zen oholtzan, eta ez zuen saio biribil-biribila egin. Kartzelako lanean finago ibili zen zaldibartarra, eta seigarren egin zuen azkenean, 431 puntugaz.

Durangaldeko ordezkariak ez da izango aurtengo Bizkaiko finalean, baina erakutsi duten maila ikusita, etorriko dira urte hobeak. Orain, hurrengo zita Bilboko Miribillan daukagu bertsozaleak; abenduaren 20an, 17:30ean. Finalerako sarrera bi dauzkagu ANBOTOn, zotz egiteko. Eskuratzeko, [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) e-mailera idatzi.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Christmas Special**  
**Travellin' Brothers Big Band**  
Abenduaren 13an - 20:00etan

**Quijotadas** Mirage Teatro  
Abenduaren 14an - 19:00etan

**San Agustín KULTUR GUNEAK**  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA**

**Durangoko Kafe Antzokia**  
[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

| ABENDUAK 12<br>22:30ean 8€/10€      | ABENDUAK 13<br>14:00 / 17:00             | ABENDUAK 18<br>20:00etan 15€(urtekoa) |
|-------------------------------------|------------------------------------------|---------------------------------------|
| <p><b>POTATO+AKATZ+Dr BALTZ</b></p> | <p><b>AIKO BAZKARI ETA ERROMERIA</b></p> | <p><b>KANTULAGUN</b></p>              |
| MUSIKA KONTZERTUA                   | DANTZALDI ERROMERIA                      | KANTUZALEEN TXOKOA                    |

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300


**EGUNEKO MENUA**  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA



**> Kirola**

# Olazar Pilota Txapelketako finalak erabakiko dituzte eguenean, Zaldibarren

Errandoneak eta Irustak Diez eta Agirre izango dituzte kontrario binakako finalerdian



Ander Errandonea da protagonistetako bat; 22 urtez azpiko Nafarroako txapelketako buruz buruko txapelduna da. Goiko.

**> PILOTA Joseba Derteano**  
Olazar Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Abenduaren 31n, 16:30ean, Zaldibarko finaleran izango diren protagonista batzuk nortzuk diren erabakita dago: Elizalde lau t'erdian eta Santxo-Erasun bikotea binaka. Aurkariak nortzuk izango diren datorren eguenean jakingo da,

Binakako finalerdian Errandoneak eta Irustak Agirreren eta Diezen kontra jokatuko dute

Lau t'erdian gazte mailako Nafarroako txapelduna eta txapeldunordea izango dira aurrez aurre

21:30etik aurrera. Finalerdi estuak aurreikusten dira.

Lau t'erdian Joanes Bakaiko eta Unai Laso nafarrek neurtuko dituzte indarrak; beste era batera esanda, gazte mailako Nafarroako gaur egungo lau t'erdiko txapelduna –Bakaikoa– eta azpitxapelduna –Laso– izango dira aurrez aurre. Bakaikoak

bigarren urtez jarraian irabazi zuen txapela joan zen astean, Labriten jokatutako finalean (18-6). Pilotari biek 17 urte dituzte, eta sarritan erakutsi dute kaiolan abilak direla. Jokatzeko moduan ez dute antzik: Bakaikoa segurua da, eta pilota gutxi galtzen du; Laso erasokorragoa da, eta erritmo bizia ezartzen saiatzen da. Nafarroako finalean Bakaikoaren jokoa nagusitu zen.

Binaka Ander Errandoneak eta Aitor Irustak Asier Agirreren eta Aitor Diezen aurka jokatuko dute. Díez eskuko minagaz dabil, eta azken unera arte duda izango da. Agirre eta Díez dira finalera sailkatzeko faboritoak. Aurrean, Agirrek Errandoneak –Inaxio Errandonea pilotari ohiairen semea– baino esperientzia handiagoa du, urte bi gehiago dituelako. Batez ere, defentsa lanean igarri daiteke adinean dagoen alde hori. Jokatzeko moduan baldin badago, atzean Díezek nagusitu beharko luke.

## Azpirik aurten ere ezin

Igor Azpiri elorriarra final laurdenetan kanporatuta geratu zen. Ander Imaz eta biek 22-7 galdu zuten finalera heldu diren Santxoren eta Erasunen aurka. Imazek erraztasunak eman zituen atzean, eta Azpiri ezinean aritu zen partidu osoan. Santxok eta Erasunek, aldiz, txapela janzteko hautagaiak zergatik diren erakutsi zuten; elkar oso ondo hartzen dute kantxan, eta pilota gutxi galtzen dute. Azpirik bere ibilbidean Olazarreko hiru finalerdi jokatu ditu, baina oraindik ez du lortu finalera sailkatzerik.

# Egigurenek eta Madarietak irabazi dute Durangoko zesta-punta finala

PRO-AM sariketako bosgarren txapelketako finala irabazi dute



Egigurenek laugarren sariketa ere irabazi zuen, Del Riogaz bikotea osatuta.

## > ZESTA-PUNTA

Jai Alai World Tour zirkuituaren barruan jokatzen den PRO-AM sariketako bosgarren finala jokatu zuten astelehenan, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, eta Mikel Egiguren eta Endika Madarieta izan ziren irabazle. Final estuan 15-11 eta 15-12 menderatu zituzten Kevin Ithurria eta Ibai Erkiaga. Egigurenek segidan lortzen duen bigarren garaipena da; izan ere, Gasteizen (Araba) jokatutako laugarren sariketako finala ere irabazi zuen Del Riogaz bikotea osatuta.

Durangoko finaleko joko biak oso parekatuak izan ziren. Au-

rrean egon zen alde. Bikote gorriak finala irabazteko Egigurenek nagusitu beharra zeukan aurrean, eta horrela gertatu zen. Hala ere, tantorik ikusgarrienak atzelariak lortu zituzten; Erkiagaren horma-biko bat eta Madarietaren dejada bat

Aurrean egon zen alde; Egigurenek nagusitu beharra zeukan, eta horrela gertatu zen

